

# azpeitian<sup>zer</sup>?

udal aldizkaria

190. zenbakia

**EHUN INDUSTRIALA  
ERREKUPERATZEA HELBURU**



**azpeitiko udala**  
denon artean



## TELEFONO INTERESGARRIAK

|                                |              |
|--------------------------------|--------------|
| Zentralita                     | 943 15 72 00 |
| Alkatetza                      | 943 15 71 85 |
| Idazkaritza                    | 943 15 71 98 |
| Kontuhartzailtza               | 943 15 71 89 |
| Hirigintza                     | 943 15 71 91 |
| Gizarte Zerbitzuak             | 943 15 71 92 |
| Kultura                        | 943 15 70 68 |
| Komunikazioa                   | 943 15 79 82 |
| Kirolak                        | 943 15 00 95 |
| Parekidetasuna                 | 943 15 79 28 |
| Emakumeen Txokoa:              | 943 15 70 55 |
| Iturritxiki Ludoteka           | 943 15 11 79 |
| Txiki-Txoko Ludoteka           | 943 15 05 16 |
| Zapo Txoko                     | 943 15 71 61 |
| Gazte Informazio Bulegoa (GIB) | 943 15 71 60 |
| Eguneko Zentroa                | 943 15 74 96 |
| Liburutegia                    | 943 15 71 95 |
| Udaltzainak                    | 943 15 13 13 |
| Suhiltzaileak                  | 112          |
| Igerilekua                     | 943 81 41 21 |
| Kiroldegia                     | 943 81 30 69 |
| Izarraitz Pilotalekua          | 943 81 25 63 |
| Euskara Patronatua             | 943 81 45 18 |
| Udal Euskaltegia               | 943 81 19 47 |
| Lapatx Zabortegia              | 943 15 18 75 |



## BOTIKA TXANDAK

### ALBERDI

Jose de Artetxe 6 • Tel.: 943 81 59 74  
Azaroak 3, 10, 17, 21, 22 eta 27.

### ARANBURU

Plaza Nagusia - Goiko kalea 2,  
Tel.: 943 81 13 50  
Azaroak 2, 7, 8, 13, 16, 23 eta 30.

### ARTETXE-BASTIDA

Urbitarate auzoa 3 • Tel.: 943 81 19 49  
Azaroak 4, 9, 14, 15, 20 eta 24.

### ARRIETA

Enparan 29 • Tel.: 943 81 12 74  
Azaroak 5, 12, 19, 26, 28 eta 29.

### JACOME

Garmendi 21 • Tel.: 943 08 02 58  
Azaroak 1, 6, 11, 18 eta 25.

## ALE HONETAN ZER?

|                                        |    |
|----------------------------------------|----|
| Alkateari elkarrizketa .....           | 3  |
| Ehun industrialaren azterketa .....    | 6  |
| Lur industrialak .....                 | 8  |
| Sustapen ekonomikoaren laguntzak ..... | 10 |
| Plan estrategikoa .....                | 14 |

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala  
Egilea: Prentsa bulegoa  
Argazkiak: Azpeitiko Udala.  
Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa  
Maketazioa eta testuak:  
Bidera Zerbitzuak (Berria Taldea)


Ale kopurua: 7.000  
L.G: SS - 1148/91

**AZPEITIK KANPO BIZI ARREN, ZURE ETXEAN  
JASO DEZAKEZU AZPEITIAN ZER? ALDIZKARI  
HAU POSTA BIDEZ. EGIN ESKARIA 943 15 71 85  
(ALKATETZA) TELEFONOAN.**

## AZPEITIA EZAGUTZEN



**INAXI ETA PATXI PERTSONAIEN BIDEZ,  
AZPEITIKO HISTORIA EZAGUTZEKO BALIOKO  
DIGUTEN HERRIKO DATU ESANGURATSUAK  
IKASTEKO AUKERA IZANGO DUGU  
AURRERANTZEAN TARTE HONETAN. EZAGUTU  
AZPEITIA, BERE HISTORIA ETA ONDAREA!**



Nahiz eta baserriak neurri handiko eraikinak izan, antzina familiarentzat gordetzen zen lekua oso txikia zen. Familiaren etxebizitza beheko solairuan egoten zen. Etxebizitza bi zatitan banatzen zen: sukaldea eta logelak. Sukaldea sarreratik gertu zegoen eta gehienetan eraikinaren aurrealdeko zokoan; baserriaren bihotza hura zen.

XVI. eta XVII. mendeetan sukaldearen erdian jarritako harlosa baten gainean pizten zen sua, eta handik zintzilikatzen zen supazterreko katea (laratza). XVIII. eta XIX. mendeetan ia etxe guztietara zabaldu zen beheko sua. Sukaldeko altzari nagusia zizaillua edo izillua zen, non eserlekuaren azpian kapoientzako kaxoiak zeuden eta bizkar-aldean berriz, gora jaso zitekeen mahaia. Ontziteria oso apala zen: zeramikazko piezak, zurezkoak eta batzuetan baita eztainuzkoak ere (lapikoak, txarroak, kaikuak, eltze handiak eta platerak).

### NAGORE ALKORTA

Azpeitiko alkatea



## “AZKEN HILABETEOTAN ESFORTZU BEREZIA EGIN DUGU EKONOMIA INDARTZEKO”

Agintaldia hastearekin bat adierazi zuen Nagore Alkorta alkateak epe motzerako kudeaketaz arduratzeaz gain, etorkizuneko erronkei aurre hartzeko lanean hasiko zela. Katramilatuta zeuden gai konplexuei heldu eta etorkizuneko

Azpeitia gaurtik marrazten hasteko konpromisoa erakutsi zuen. Gai konplexu horietako bat da ekonomia arloa; ekonomiaren sustapena, langabeziari aurre egitea eta lur industriaren garapena, besteak beste.

## ALKATEARI ELKARRIZKETA



### **Osasun eta ekonomia krisi betean gaude. Azken hilabeteotan etorkizuneko begirada landu beharra berretsi duzu?**

Bai, noski. Pandemiak argi utzi digu egunerokoari aurre egiteko kudeaketaz gain, hemendik guztiok inor atzean utzi gabe eta indartsu irteko politiken eta neurrien beharra. Lehentasunak berretsi ditu egoera honek, eta azken hilabeteotan esfortzu berezia egin dugu ekonomia eta gizarte zerbitzuak indartzeko.

### **Etorkizuna lantzeko erreminta garrantzitsua izango da berritzen hasi zareten plan estrategikoa.**

Hasi berriak gara plan estrategikoa

osatzen, baina herriko erronka nagusiak identifikatu eta garatzeko estrategiak zehazteko tresna baliagarria osatzea da helburua. Horretarako ezinbestekoa izango dira udal teknikari eta arduradun politikoen hausnarketa eta herriarren ekarpen eta iritzia. Gaur gaurkoz, herritarren parte hartzerako telefono bidezko galdeketa egiten ari gara, eta ondoren jardunaldi batzuen bidez ere lanketa egitea aurreikusten dugu. 2030. urtera begira jarri eta nolako Azpeitia edukitzea nahi dugun pentsatu eta hausnartu nahi dugu; horren baitan, norabidea zehaztuta lan egiteko.

**“LANDEK ZAILTASUN  
BEREZIAK DITU ETA LUR  
INDUSTRIALA ZAHARKITUTA EGOTEAZ  
GAIN, ESKU PRIBATUETAN DAGO, ETA  
HORREK ESKU-HARTZEA  
ASKO LUZATU ETA  
ZAILTZEN DU.”**

### **Plan estrategiko horretako gakoetako bat ekonomia izango da.**

Ekonomia herritarren kezka nagusia da azken urteotan, eta gure lehentasuna, beraz. Ekonomiak ertz asko ditu, erabaki eta neurri batzuk epe motzerakoak dira eta beste asko gaurtik lantzen hasi behar dira etorkizunean fruituak emateko.

**“LANGABEZIA EZ HANDITZEA  
DA GAUR EGUNGO HELBURUA;  
BAINA ETORKIZUNERA BEGIRA, HERRIAN  
ETA HERRITARRENTZAT KALITATEZKO  
ENPLEGUAK SORTU AHAL IZATEKO  
BALIABIDEAK ESKAINTZEA”**

lur industrialen inguruan inbertsio publikorik ez dela egin. Lur industriaren okupazioa %90ekoa da herrian; Landetan salbu. Eremu horrek zailtasun bereziak ditu eta lur industrialak zaharkituta egoteaz gain, esku pribatuetan dago, eta horrek esku-hartzea asko luzatu eta zailtzen du. Horregatik, ezinbestekoa iruditzen zaigu bide horretan pausoak ematea.

### **Sprilurrekin harremanetan zaudete azken hilabeteotan.**

Bai, eta harremana emankorra izaten ari da. Lur industrialen gaia aztertzen hasi ginenean Larringo industriagunea garatzeko helburuarekin jarri ginen harremanetan. Interes komunak ditugu eremu horretan herriko ekonomia sustatu eta jarduera berriak erakartzeko lur industrialak egokitzeko.

Hilabeteetako elkarlanaren ostean, bi aldeon konpromisoa adierazi eta lanerako bide-orria zehazten duen hitzarmena sinatuko dugu aurki. Pauso garrantzitsua izango da Azpeitiarentzat.

### **Bide luzea izango da hor industriagunea egiten hasi arte?**

Bai, horrelako asmo eta planak

epe ertain edo luzera begira garatu beharrekoak izan ohi dira. Horregatik azpimarratu izan dugu korapilatuta dauden gaiak askatzen hasteko beharra. Sprilurrek eta Udalak gai honen epeak ahal bezain beste mozteko konpromisoa hartu dute.

### **Corrugados ere hor dago.**

Herri barruan kokatuta dugu enpresa horren zati bat, eta duen dimentsiogatik eta dagoen lekuegatik eremu oso garrantzitsua da. Jabe berriekin harremanetan gaude, eremu horri ahalik eta aterabide egokiena bilatzeko.

### **Lur industrialez gain, sustapen ekonomikorako laguntzak ere indartu dituzue aurtun.**

Egoera oso-oso berezia eta gogorra bizitzen ari aurtengoan. Osasun krisiak, krisi ekonomikoa eta soziala eragin ditu, eta lehen ere juxtu ibiltzen ziren sektore horiek kolpatu ditu gehien. Bide horretan, Udalak arlo desberdinetarako diru laguntzak bideratu ditu, tartean ekonomiaren sustapenerako.

### **Aurreko urteetako diru partida bikoiztu duzue aurtengorako.**

Egoerak horrela eskatzen duela ulertu dugu. Diru publikoaren kudeaketa arduratsua eta zorrotza daramagu, baina ulertzen dugu horrelako komentuen direla Udalak esfortzu berezia egin eta baliabideak eskaini beharrekoak.

### **Langileen kontratazioa diruz laguntzeko linea berri bat sortu duzue aurtengo deialdian.**

Herriko langile sarea gutxienez mantendu edo handitzeko da erronka. Garai zailak dira eta lan munduan ezegonkortasuna da nagusi. Bide horretan, laguntza honen bidez herritarren kontratazioak bultzatzeko bidea erraztea da helburua.

Bizitzen ari garen egoera ezegonkor honek ekonomia, eta batez ere, enplegua kezka iturri bilakatu du herritarren artean. Udalean ere kezka horrekin bat egiten dugu; eta arazo horri etorkizuneko prespektiba batekin heldu nahi diogu. Langabezia ez handitzea da gaur egungo helburua; baina etorkizunera begira, herrian eta herritarrentzat kalitatezko enpleguak sortu ahal izateko baliabideak eskaintzea.

### **Zein dira etorkizuneko erronka horiek?**

Lur industrialena da nagusienetarikoa. Urte asko dira Azpeitian



EHUN INDUSTRIALGUNEA

## EHUN INDUSTRIALAREN ETORKIZUNeko BEHARRAK DETEKTATZEKO AZTERKETA EGIN DA

185 enpresak hartu dute azterketan parte, eta, besteak beste, 39 enpresak pabilioiak handitzeko edo espazio handiagoa izateko lekualdatzeko asmoa agertu dute.

**E**skuladeko Industria Sustatzeko sozietateak, elkarlanean. Ekonomiaren sustapena udalaren lan lerro nagusienetarikoa da azken urteotan; eta arlo horren gaur egungo argazkia ateratzea izan da helburua.

“Herriko ekonomiaren motorea industria da eta industriaren egoera ezagutzeko, eta arlo horren inguruan abiatzen diren politikak ahalik eta eraginkorrenak izateko egin da azterketa”, adierazi du Nagore Alkorta alkateak. Azpeitiko Udalak ekonomiaren sustapenerako laguntzekin jarraitzeaz gain, lur industrialen egoera aztertu, ondorioak atera eta beharrezko neurriak hartzeko konpromisoa du.

Azterketa iazko azarotik maiatzera bitartean egin da eta 221 enpresa detektatu badira ere, 185 enpresen inguruko azterketa egin ahal izan da. “Azpeitiaren gaur egungo diagnostikoa egin dugu. Duela zenbait urte jasan genuen krisiak eragin zuzena izan zuen industrian. Azterketa honekin, bi helburu bete ditugu, alde batetik, hutsik dauden pabilioien zerrenda atera dugu eta zein baldintzatan dauden zehaztu dugu. Ondoren, aterabiderik ba ote duten aztertzeko. Bestetik, jardueraren bat duten pabilioiak nolakoak diren, zenbat jende duten lanean, pabilioiaren baldintzak, zein diren etorkizuneko beharrak... ezagutzeko aukera izango dugu”, zehaztu du Alkorta.

Zaharkituta han-hemenka aurkitzen diren pabilioiek ez dutela aterabide erraza jakitun dira, esku pribatuetan daudelako besteak beste. Lur industrialen inguruko lanketaren emaitzak epe luzerako prespektibarekin landu behar-koak dira, baina arazoari heltzeko konpromisoa agertu du Alkorta: “Erronka honi heldu nahi diogu. Ikuspegi estrategikoz jokatu eta luzerako begirada geureganatu. Jabego pribatua, erakundeak... interes eta eskuduntza desberdinak batzen dira, baina pixkana-

IKERKETAN PARTE HARTU  
DUTEN 39 ENPRESAK PABILIOIA  
HANDITU EDO LEKUALDATZEKO  
BEHARRA AGERTU DUTE



ka korapiloak askatzen joan behar dugu. Ezinbestean heldu beharreko gaia dela uste dugu”, zehaztu du.

## INDUSTRIA SAREA, DATUTAN

Azpeitiko industriaren aktibitate nagusiak egurraren lanketarekin harremana duten jarduerak (zura zerratzea eta zepilatzea eta etxeko altzari mota guztiak fabrikatzea, banatzea eta merkaturatzea) eta Makina erre-minta eta pieza industrialen mekani-zazioa dira.

Azpeitiko indurtriaguneen batez-besteko okupazioa %90 ingurukoa da, Landetan salbu. Ere-mu horrek berezitasun eta zailtasunak eremuaren zahartzeak eraginda, gaur egun %65eko okupazioa du. Orohar, enpresen instalazioak egokiak dira duten jarduerarako, baina hainbat enpresek itxura zaharkitua dutela detektatu da. Horretaz gain, hainbat arazo edo zailtasun zehatz ere jaso



**AZPEITIKO INDURTRIAGUNEEN  
BATEZBESTEKO OKUPAZIOA  
%90 INGURUKOA DA, LANDETAN  
SALBU; EREMU HORRETAKO  
OKUPAZIOA %65EKO DA**


dira eta udala bere eskumenen baitan sailtuko da arazo horiek aztertu eta aterabidea bilatzen.

Ikerketan parte hartu duten 185 enpresetatik 39 enpresek pabilioia handitu edo lekualdatzeko beharra agertu dute; horietatik bostek

epe motzean (urtebeteko epean), 30 enpresek epe ertainean (bi eta bost urteren epean) eta laurek epe luzera.

## ETORKIZUNERAKO OINARRIAK

Herriko enpresen beharrak zeintzuk diren jakitea ezinbestekoa da beharrei erantzun ahal izateko: “Azterketa honen bidez, herriko indurtriaguneen errealitatea ezagutu eta enpresen beharren eta asmoen berri izan dugu. Etorkizunera begira, informazio oso garrantzitsua jaso dugu, hainbat erronkari heltzeko”, gaineratu du.





**INDUSTRIA LURRAK  
EGOKITZEAZ GAIN,  
BERTAN KOKA DAITEZKEEN  
ENPRESAK ERAKARTZEKO  
HELBURUA ERE ADOSTU  
DUTE**

Lanketa horren baitan, Sprilurrek Larringo industriagunea garatzeko interesa azaldu zuen eta, garaietara egokitutako hitzarmen bat adostu dute lur industrial egokituak eskura izateko. “Azpeitiak duen behar nagusietarikoa da lur industrialak egokitzearena eta hori lortzeko lanean ari gara. Ez da epe motzean soluzionatu daitezkeen zerbait. Eskertu nahi dugu Sprilur-eko arduradunek hasieratik erakutsi duten lanerako prestutasuna eta konpromisoa”, gaineratu du alkateak.

### **BI ALDEEN KONPROMISOA**

Hitzarmen honen bidez, Azpeitiko Udala Larringo lursailak urbanizatzeko prozesuan beharrezko diren hirigintza eta administrazio izapideak lehenbailehen egiteko konpromisoa hartu du. Baita, hitzarmen honen garapenean sor daitezkeen espedienteak osatu eta dinamizatzeko ere.

**DUELA HAINBAT URTE  
DISEINATUTAKO PABILOI  
EREDUEK EZ DIETE ERANTZUTEN  
GAUR EGUNGO INDUSTRIAREN  
BEHARREI**

Horretaz gain, Udalak behin betiko onartuko ditu obrak hasteko behar diren plangintza, Kudeaketa edo urbanizazio-tresnak. Antolamenduak, unean-unean ezartzen dituen itun, lankidetzak eta bestelakoak ere arretaz tramitatuko ditu.

Sprik, bere aldetik, berriz, Larrin 22. Hirigintza Eremua garatzeko beharrezkoak diren hirigintza-plangintzako eta kudeaketako tresnak idaztea eta idatziko ditu eta eremuaren urbaniza-

zio-obrak egiteko lizitazioa egingo du. Horretaz gain, Azpeitiko Udalarik ahalik eta lankidetzak handiena emango dio, eta, komunikazioa errazteko konpromisoa hartu du.

Indurtriagunea erakitzen aurreko prozesua bi-hiru urte luza daiteke, baina bi erakundeek prozesua arindu eta tramiteak ahal bezain beste azkartzea adostu dute.

### **ENPRESAK ERAKARTZEA HELBURU**

Industria lurra egokitzeaz gain, hitzarmenean bertan koka daitezkeen enpresak erakartzeko helburua ere finkatu da. Hala, Azpeitiko Udalak enpresa-zerrenda bat proposatuko du, eta Sprilurrek antolamenduaren ondoriozko industria-partzela eraiki-garrien balizko erosleekin uztartuko ditu, azken buruan industrialdean instalatuko diren enpresak hautatzeko prozesuan sartzeko.



## 475.000€ HERRIKO EKONOMIARI BULTZADA EMATEKO

**Uztailean, oinarriak egoerara berregokitu ostean jarri zuen abian Udalak aurtengo Sustapen Ekonomikorako laguntzen deialdia. Krisi ekonomiko eta soziosanitarioak ezjakintasun eta egoera ezegonkorra sortu du eta eragin zuzena du herritarren eta eragile soziosanitarioengan. Udala izanik herritarrek eta eragileek jotzen duten lehen atea, lehen unetik egoerak sortutako beharrei erantzuteko baliabide materialak eta dirulaguntza lineak jartzeari ekin zion. Bide horretan, maiatzaren 23an, ekonomiaren sustapenerako plan integrala onartu zuen Udalak: 11 lan lerro eta 1,7 milioi euro jarri zituen Udalak plan horretarako; horietatik 475.000€ lan munduari bultzada ematera bideratu dira. Laguntzak eskatzeko epea, urriaren 30ean bukatuko da.**

Auengo deialdirako aurreikusitako aurrekontua bikoiztu egin du Udalak, “egoerak eskatzen duelako”. “Gure helburua beti inor atzean ez uztea izan da, eta egoera honetan ere sektore desberdinei lagunduz krisiari aurre hartzea da. Babes sare integral bat osatu nahi izan dugu”, adierazi du Nagore Alkorta alkateak.

Ekonomia sustatzeko laguntzak 2013. urtean jarri zituen abian Udalak, eta orain arteko ibilbidea eta beharrak aztertuz eta herrian dagoen ehun industria aintzat hartuta osatu da aurtengo deialdia. Laguntza honen helburu nagusia da enpleguaren sorrera eta enpresen lehiakortasuna sustatuz sortu den krisi egoera gainditzea eta eraldaketa ekonomiko eta soziala eraginez lehiakortasun eta

garapen jasangarriko beste errealitate batera salto egitea.

Laguntza horiek zehazterakoan hainbat azterketa eta datu izan ditu Udalak oinarri. Alde batetik, pixkanaka goraka doan langabezia tasa izan dute kontuan. Azken datuen arabera, irailean, %9,9koa izan da langabezia tasa (%7,7 gizonetzkoena eta %13 emakumezkoena); 735 herritar dauka langabezia. “Datu horien atzean izen abizen dun herritarrak daude, eta langabeziari aurre egitea ezinbestekoa da guretzat”, gaineratu du.

Horretarako lau lan lerro zehaztu dira, ohiko hiru egokituta eta langileak kontratatzeko laguntza linea berri bat: “Laugarren linea bat sartu dugu aurtengo deialdian, langileak kontratatzeko. Gure herrian langileen sarea handitzea edo gutxienez mantentzea da gure helburua”, adierazi du Alkortak.



# 1. MERKATARITZA ETA LEHEN SEKTOREAN ENPLEGUA ETA EKONOMIA SUSTATZEKO LAGUNTZA

175.000€ko aurrekontua du, eta eskaerak egiteko epea urriaren 30era arte izango da aukera. Diruz lagunduko dira:

- Langileak kontratatzea.
- Merkataritza arloko lehiakortasuna eta lehen sektorea sustatzeko ekintzak edo jarduerak egitea. Laguntza honetan berritasun gisa, COVID-19aren eraginez hartu beharreko prebentzio neurriak ezartzeko egindako gastuei aurre egiteko laguntza jarri da.
- Lehenengo sektorea ezarri, eraberritu edo finkatzea.
- Azpeitian merkataritzako (zerbitzuak barne) edo lehen sektoreko jarduerak jartzea
- Azpeitian merkataritzako (zerbitzuak barne) edo lehen sektoreko jarduera berrientzat zuzendutako lokalen alokairuak.
- Azpeitian kokatutako merkataritza establezimenduentzat (zerbitzuak barne) merkatu azterketak egitea.

## INBERTSIOETARAKO LAGUNTZA

**Covid -9aren hedapenari aurre egiteko egindako inbertsioak diruz lagunduko dira. Merkataritza eta ostalaritza sektoreetan beharrezko inbertsioak lagunduko dira.**

- Lokalak eta laneko moduak egokitzea.
- Segurtasun eta osasunaren irizpideak/protokoloak betetze aldera, merkataritza- edo ostalaritza-lokalak moldatzeko inbertsioak eta ekipamendua.
- Bezeroekin eta erakunde hornitzaileekin harreman berriak antolatze aldera, laneko moduak egokitzeko inbertsioak eta ekipamendua.

Gehienez, 2.000€ko laguntza jasotzeko aukera izango da. Eskaerak egiteko epea urriaren 30ean bukatuko da.



## 2. INDUSTRIA PROIEKTU ESTRATEGIKOAK ETA BERRITZAILEAK, ENPLEGUA SORTU EDO MANTENTZEN DUTEN ETA GARAPEN JASANGARRIA BULTZATZEN DUTEN INBERTSIO PROIEKTUAK ETA GENERO-BERDINTASUNA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZEN LERROAK SUSTATZEKO LAGUNTZAK

**160.000€ko aurrekontua izango du eta eskaerak egiteko epea urriaren 30era arte izango da aukera. Diruz lagunduko dira:**

- 49 langile edo gutxiagoko enpresetarako industria-proiektu estrategiko eta berritzaileak exekutatu eta garatzea.
- Instalazioak egokitu edo erosteko inbertsioak egitea, edota ekipamendu tekniko eta teknologikoak erostea, 49 langile edo gutxiagoko enpresentzat. Arlo honetan enpresen digitalizaziorako laguntzak bideratuko dira. Alarma egoerak behar berriak sortu baititu.
- Industria-jarduera berriak modu finkoan Azpeitian ezartzea.
- Genero-berdintasuna bultzatzeko neurriak ezartzea, berdintasun-planak eginez eta instalazioak egokitzeko inbertsio zehatzak bideratuz.

**HERRIKO LANGIL  
SAREA HANDITU EDO GUTXIENEZ  
MANTENDU ASMOZ,  
KONTRATAZIOAK DIRUZ  
LAGUNDUKO DIRA**

## 3.

### **EKINTZAILETASUNA SUSTATUZ, BEREZIKI GIZARTE EKONOMIAN ETA IZAERA ESTRATEGIKOA EDO BERRITZAILEA DUTEN JARDUERETAN ENPLEGUAREN SORRERA BULTZATZEKO DIRU LAGUNTZAK**

65.000€ko aurrekontua izango du eskaerak egiteko epea urriaren 30era arte izango da aukera. Diruz laguntza eskatu ahal izango dute 2018ko urriaren 16tik 2020. urteko irailaren 30era bitartean enpresa berri bat sortu dutenek.

## 4.

### **LANGILEEN KONTRATAZIORAKO LAGUNTZA**

Hasieratik zehaztutako lerroez gain, errealitatea eta datuak ezagututa, Azpeitiko Udalak laugarren lerro bat abian jartzeko apustua egin du, Plan integralean jaso bezala. Lerro honetarako 75.000€ jarri dira. Kontuan izanda gaur gaurkoz eskaerak egiteko bi epe izango dira, urriaren 31 bitartera arte eginiko kontratazioetarako eta azaroaren 1tik abenduren 31 bitartekoentzat.

Azpeitiko enpresek herritarrak kontratatzea diruz lagunduko du. Bide horretan, herriko enpresen lanpostuak mantentzea eta lanpostuen kalitatea hobetzea da helburua. Laguntza lerro berri honen helburua egoera honetan kontratazioak bultzatzea da. Aldi baterako eta kontratu mugagabeak lagunduko dira diruz.

## PLAN ESTRATEGIKOA



DENON ARTEAN

## ETORKIZUNA

AZPEITIA 2030 \ Plan estrategikoa



# 'AZPEITIA 2030 PLAN ESTRATEGIKOA' ABIATU DU UDALAK; ETORKIZUNeko ERRONKAK DEFINITZEKO

**Herritarren iritzi eta ekarpenekin osatuko da plana, besteak beste. Herritarren lehentasun eta iritzien berri jasotzeko 400 herritarri galdetegia egiten hasiak dira**

2013. urtean osatu zuen lehen aldiz Azpeitiko Udalak herriaren etorkizuna marrazteko plan estrategikoa. Plan hori eguneratu egin zen duela zenbait urte. Plan hori 2025era artekoa da, baina ekintza plana 2020.urtera arte egina dago. Hori ikusirik, eta planaren betetze


maila %60tik gorakoa dela jakinik, Azpeitiko Udalak orain artekoa oinarri hartuta 2030. urtera arteko plan estrategikoa osatzeko prozesua abiatu du.

Bizi dugun osasun alarma egoeran ezinbestekoa da egunean-eguneko kudeaketari erantzutea; baina, aldi berean epe luzera jarri eta krisi honetatik irtetea Azpeitia garatzeko estrategia definitzeak ere garrantzia berezia hartzen du. Lan horren helburua da, momentuko egoera

kudeatzera mugatu ordez, etorkizuneko Azpeitia eraikitzeko tresna edo bitartekoa sortzea.

“Pandemiak hankaz gora jarri du mundua. Behar bereziak sortu dira. Eta argi daukagu, lehenik eta behin, herritarrek dituzten momentuko behar horiei erantzutea dela udal honen lehentasuna. Baina, ezin gara momentuko egoerak itota gelditu; gaur hartzen ditugun erabakien arabera izango baita biharko Azpeitia. Eta horregatik,

## Gauzatze maila urtez urte



**“MOMENTUKO EGOERA  
KUDEATZERA  
MUGATU ORDEZ, ETORKIZUNeko  
AZPEITIA ERAIKITZEKO TRESNA  
EDO BITARTEKOA  
SORTUKO DA”**

beharrezkoa da ikuspegi luzera begira ere lanean jarraitzea”, adierazi du Nagore Alkorta alkateak.

Covid 19aren pandemiak krisi ekonomiko eta soziala ekarri ditu eta momentu zailak direla guztientzat gaineratu du: “Lehentasunak aldatu edota lehendik ere lehentasunezko beharrak zirenak areagotu direla esan genezake. Eta egoera honetan, are garrantzitsuagoa da ditugun baliabideak eraginkortasunez erabiltzea. Lehentasunak ondo

definitu eta horiei erantzuten asmatzea”.

Mezu baikorra ere izan du alkateak: “Hemendik ere aterako gara. Guztiok batera eta osasuntsu ateratzea da helburua. Horretarako, denon ekarpena behar beharrezkoa izango da. Indarrak batzeko garaia da. Herri moduan daukagun onena emateko garaia. Inor atzean utzi gabe, Azpeitia eraikitzen jarraitzeko momentuan gaude”.

## HERRITARREN IRITZIAK

Bi-hiru hilabeteko epean osatuko du Udalak Plan estrategikoa. Epe horretan, arduradun politikoen ikuspegi azalduz, udaleko teknikari, taldeetako ordezkari eta herritarren iritziak kontuan hartzeko dinamika desberdinak abiatuko ditu.

Plana osatzeko prozesua ez da hutsetik abiatuko; 2013an osatutako plan estrategikoaren lanketaz gain urteotako “esperientzia eta momentuko egoeraren diagnostikoa zehatza” izango direlako abiapuntu.

Herritarren iritzia ezinbestekoa izango da plan estrategikoa osatzeko garaian. Iritziak eta ekarpenak jasotzeko 400 herritarri telefonoz galdetegi egiten hasia da udala. Horretaz gain, azaroan, bi saioko jardunaldi bat ere aurreikusten du, herriko eragile ezberdinetako ki-deekin plana lantzeko.

Planari bukaera emateko, Azpeitiko eragile ezberdinen ekarpenak jaso ostean, udalbatzan eztabaidatu eta onartuko da Azpeitia 2030 plan estrategikoa.



SARRERAK  
ON LINE  
SALGAI



# 38. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK

2020KO UDAZKENA AZPEITIA

## URRIA

### 29, OSTEguna

HELDUENTZAT  
**MATRIUSKA**  
IRAIA ELIAS ETA AMANCAY GAZTANAGA  
19:30EAN, DINAMOA SORMEN GUNEAN

### 30, OSTIRALA

HELDUENTZAT  
**ERLAUNTZA**  
VAIVEN PRODUKZIOAK  
19:30EAN, SOREASU ANTZOKIAN

### 31, LARUNBATA

HAUR + HELDUENTZAT  
**KASKAROT**  
ATX TEATROA  
17:00ETAN, SOREASU ANTZOKIAN

## AZAROA

CORRADO MASACCI-REN  
**TXOTXONGILO  
TAILERRA ETA  
ERAKUSKETA**

AZAROAREN IETIK 15ERA ARTE  
GOIZEZ // ARRATSALDEZ  
BETHARRAM ABETOAN

### 1, IGANDEA

HELDUENTZAT  
**FADOAK ENTZUTEN  
ZITUEN  
GIZONA**

XAKE PRODUKZIOAK  
19:30EAN, SOREASU ANTZOKIAN

### 5, OSTEguna

HELDUENTZAT  
**URRUNA**  
TRIDAK KONPAINIA  
19:30EAN, DINAMOA SORMEN GUNEAN

### 6, OSTIRALA

HELDUENTZAT  
**LANAZ ETA XAHARRETAZ**  
BONBON BELTZ  
19:30EAN, SOREASU ANTZOKIAN

### 7, LARUNBATA

HAUR + HELDUENTZAT  
**IKIMILIKILIKLIK**  
MARIE DE JONGH TEATROA  
17:00ETAN, SOREASU ANTZOKIAN

### 12, OSTEguna

HELDUENTZAT  
**TRIBIZ, BASERRI GALDUE**  
JON ANDER URRESTI  
19:30EAN, DINAMOA SORMEN GUNEAN

### 13, OSTIRALA

HELDUENTZAT  
**ANTIGONE EDO  
EZETZAREN BEHARRA**  
HORMAN POSTER  
19:30EAN, SOREASU ANTZOKIAN

### 14, LARUNBATA

HAUR + HELDUENTZAT  
**PINOCCHIO**  
TEATRO GORAKADA  
17:00ETAN, SOREASU ANTZOKIAN

### 15, IGANDEA

HELDUENTZAT  
**GUATEKE**  
EROMEN PRODUKZIOAK  
19:30EAN, SOREASU ANTZOKIAN

### 20, OSTIRALA

**38. ANTZERKI TOPAKETEN  
HAINBAT GUNE ETA  
MOMENTU GOGORATUZ  
SARI BANAKETA**

19:30EAN, DINAMOA SORMEN GUNEAN

**EUSKAL  
ANTZERKIAZ  
GOZA  
DEZAGULA!**

ANTOLATZALEA:



**azpeitikoudala**  
denon artean

LAGUNTZALEAK:



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputazioa Foru  
de Gipuzkoa



ORAIN  
GIPUZKOA

**Kulturaz**  
Azpeitiko Kultur Kooperatiba